

Bosgarrena. Izena: Giza baliabideak

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen jardunean burututako eginkizun bat betetzeko; Nafarroako Parlamentuko langileen estatutua.
- b) Tratamenduaren xedek: Nafarroako Parlamentuko langileen kudeaketarako behar diren datuak. Nafarroako Parlamentuko langileen giza baliabideen erregistroa eta kudeaketa. Haren erabilerak honakoak barne hartzen ditu: langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak, langileen prestakuntza, bateraezintasunen kontrola, lan arriskuen prebentzioa, altak eta bajak eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei eta gizarte aurreikuspeneko entitateei eginiko komunikazioak, bai eta presentzia-kontrola ere.
- c) Ukitutako pertsonak edo kolektiboak: Nafarroako Parlamentuko langile funtzionarioak, kontratatuak eta behin-behinekoak eta foru parlamentariak.
- d) Datu-kategoriak:
 - Identifikazio-datuak: izen-deiturak, NANA, helbidea, telefonoa, argazkia, sinadura eta sinadura elektronikoa.
 - Xehetasun pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-egoera, jaioteguna, jaioterria.
 - Datu akademiko eta profesionalak: titulazioak, sartu aurreko esperientzia profesionala, prestakuntza-ikastaroak, irakaskuntza-arloko esperientzia, kongresu, mintegi eta ikastaroetara joatea eta haietan parte-hartzea.
 - Datu ekonomiko-finantzarioak: nominari eta aseguruiei buruzko datu ekonomikoak.
 - Arau-hausteei buruzko datuak: diziplinakoak.
 - Categoria bereziko datuak: afiliazio sindikalari buruzko datuak eta osasunari buruzko datuak (gaixotasunagatiko bajak, lan-istripuak, desgaitasun-gradua); datu biometrikoak (hatz-marka).
- e) Hartzaile-kategoriak: Foru Ogasuna, Gizarte Segurantzari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra, funtzionarioen mutualitatea, langileak heldu diren administrazio publikoetako langile-erregistroak, Nafarroako Parlamentuko bizi- nahiz istripu-asegururako kontratua egiten duen aseguru-enpresa, Nafarroako Gobernuaren eta azterketa medikoa egiten duen enpresa.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna,

haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.

